

1.BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektuaren bitartez bezeroei irakurtzeko modu berri bat eskainiko diegu; entretenitzeko modu ezberdin eta berritzaile bat. Honen balioa kualitatiboa izango da, diseinuan oinarrituko baikara, eta ez prezioan.

Irakurketa bultzatzea izango dugu helburu taktika berritzaile baten bidez: erositako liburuarekin batera musika CD bat ekartzea irakurtzerako orduan liburuan gehiago sartzeko eta irakurritakoa bizitzeko. Produktuaren originaltasuna ikusita, bezeroen arreta deituko du eta frogatzeko prest egongo dira.

